eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco | Euskal Herriko Unibertsitatea

**ehukultura**




**Egitaraua** | Programma

# URTARRILA-MARTXOA
# ENERO-MARZO
# 2021

Bizkaia Aretoa-UPV/EHU. Bilbao

**www.ehu.eus/ehukultura-bizkaia**

**Argazkia**/Fotografía: **Tere Ormazabal.**

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco | Euskal Herriko Unibertsitatea

Bizkaia Aretoa

# BIZKAIA ARETOA- UPV/EHU. 10 URTEZ MUNDURA ZABALIK

# BIZKAIA ARETOA- UPV/EHU. 10 AÑOS ABIERTO AL MUNDO



**Aurten, Bizkaia Aretoa - UPV/EHU-k 10 urte betetzen ditu, eta urteurren horren inguruan hainbat ekintza burutuko dira.**

**Antzerkiak, mahai-inguruak, kontzertuak, tailerrak, eta abar izango ditugu Euskal Herriko Unibertsitatearen Paraninfoan.**

Este 2021 el Bizkaia Aretoa - UPV/EHU cumple 10 años, y para celebrar el aniversario se llevarán a cabo numerosas actividades culturales y científicas.

Teatro, conferencias, conciertos, talleres, y mucho más te esperan en el Paraninfo de la Universidad del País Vasco en Bizkaia.

**Eraikuntzaren argiztapena /** Iluminación del edificio:
Tarima Soluciones técnicas creativas

**Argazkia /** Fotografía: José Ignacio García

# A ESTE LADO DEL MUNDO

Zinema/ cine

Urtarrilak 20 enero 17.30

**Sala Mitxelena aretoa. Bizkaia Aretoa-UPV/EHU**

CAS

Sarrera librea. Edukieran mugak eta ordutegian aldaketak egon daitezke Covid-19 araudiaren ondorioz.
Entrada libre. Limitaciones de aforo y cambios de horarios susceptibles por normativa Covid-19.



**David Trueba-rekin elkarretaratzea eta pelikularen emanaldia**

Ingeniari gazte batek bere bikotekideari ezkutatu dio lan egiten zuen enpresan izan duen kaleratzea. Horren berri ez emateko, hiritik kanpo egiteko enkargu bat onartuko du, eta horrek mundua begiratzeko modua aldatuko dio.

Encuentro con David Trueba y proyección de la película

Un joven ingeniero ha ocultado a su pareja el despido que ha sufrido en la empresa en la que trabajaba. Para encubrirlo, no duda en aceptar un encargo fuera de la ciudad que va a cambiar su manera de mirar el mundo.

**Fitxa Teknikoa /** Ficha Técnica

**Idazlea eta Zuzendaria / Escrita y dirigida por:** David Trueba
**Produkzio zuzendaria / Directora de producción:** Marga Villalonga
**Produkzio koordinatzailea / Coordinadora de producción:** Paula Fuertes
**Muntatzailea / Montadora:** Marta Velasco
**Argazki zuzendaria / Director de fotografía:** Julio César Tortuero
**Musika / Música:** Tali Rubinstein, Layth Sidiq, Javier Limón
**Zuzeneko soinuan / Sonido directo**: Álvaro Silva Wuth, David de la Cruz
**Soinu-muntatzailea / Montaje de sonido:** Salomé Limón
**Ekoizleak / Productoras:** Buenavida Producciones, S.L., Perdidos G.C., S.L.

**Kolaborazioan** / En colaboración con:

Ongi etorri errefuxiatuak

# NO ES PAÍS PARA NEGRAS

Antzerkia / teatro

Urtarrilak 27 enero 19.00

**Sala Mitxelena aretoa. Bizkaia Aretoa-UPV/EHU**

CAS

Sarrera librea. Edukieran mugak eta ordutegian aldaketak egon daitezke Covid-19 araudiaren ondorioz.
Entrada libre. Limitaciones de aforo y cambios de horarios susceptibles por normativa Covid-19.




**Aktorea / Actriz:** Silvia Albert Sopale
**Zuzendaria / Dirección:** Carolina Torres Topaga
**Testua / Texto:** Silvia Albert Sopale, Carolina Torres Topaga, Laura Freijo Justo
**Mugimendua / Movimiento:** Chechu García
**Espazio eszenikoa / Espacio escénico:** Carolina Torres Topaga
**Soinua / Sonido:** Silvia M. Aranda
**Argiztapena / Iluminación:** Alberto Barberá
**Jantziak / Vestuario:** Eugenia Gusmerini
**Argazkiak / Fotografía:** Toni Payán, Joan Linuxbcn y Josep Tobella

**No es país para negras komedia dramatiko bat da, bizi garen gizarte arrazistaz gogoeta egitera behartzen duena; lehen pertsonan idatzitako lan autorreferentziala da, oharkabean pasatzen diren mikro arrazismoak eta arrazakeria sotila ikusgai uzten dituena.**

**Gizarteak afrikarren ondorengoak nola ikusten edo ez dituen ikusten gogoetatik abiaturik, eta begirada horrek norberaren identitatearen eraikuntzan nola eragiten duen hausnarketa eginda, Silvia Albertek hainbat galdera plazaratzen ditu: Espainian, zer gertatzen da belztasunarekin? Zein dira nire erreferente beltz nazionalak? Zein da Espainiako beltzen historia? Nire familiako beltzez gain, nor ziren besteak? Ni beltza edo afroa nazi? Zer da afro espainiarra izatea? Jaio eta hazi nintzen herrialdean ez dute nire nazionalitatea onartzen, larruazalaren tonu desberdina dudalako. Inongoa ez izatearen sentimenduarekin hazi nintzen.**

No es país para negras es una comedia dramática que interpela a la sociedad racista en que vivimos; una obra autorreferencial escrita en primera persona, que muestra los micro racismos y el racismo sutil que pasan desapercibidos.

A partir de la reflexión sobre cómo la sociedad ve, o no ve, a los afrodescendientes y cómo esta mirada afecta en la construcción de la propia identidad, Silvia Albert plantea diversas cuestiones: En España, ¿qué pasa con la negritud? ¿Cuáles son mis referentes negro@s nacionales? ¿Cuál es la historia de l@s negr@s en España? ¿Además de los negr@s de mi familia, quienes eran l@s demás? ¿Yo soy negra o afro? ¿Qué es ser afro-española? Nací y crecí en un país donde no se reconoce mi nacionalidad porque tengo un tono de piel distinto. Crecí con el sentimiento de no pertenecer a parte alguna.

**Kolaborazioan** / En colaboración con:

Ongi Etorri Errefuxiatuak

Bilbao UDALA AYUNTAMIENTO

# ZOMORROAREN KRONIKA BAT
Pandemia eta gizartea ikasle baten begietatik

# UNA CRÓNICA DEL BICHO
Pandemia y sociedad a través de la mirada de un estudiante

**Erakusketa** / exposición
**Astelehenetik ostiralera** / lunes a viernes 09.00- 19.30

**Urtarrilak 28** enero - **otsailak 25** febrero

**Sala Etxepare aretoa. Bizkaia Aretoa-UPV/EHU**




Koronabirusak hamaika modutara eragin dio gizarteko pertsona orori. Beñat Lizaso Garcia (Urnieta, 1998) bere egunerokotasunean argazkiak ateratzera bultzatu zuen itxialdiak.

Tino Sorianok (National Geographyceko argazkilaria) dio argaz-

El coronavirus ha afectado de mil maneras a todas las personas. El confinamiento impulsó a Beñat Lizaso Garcia (Urnieta, 1998) a tomar fotografías de su día a día.

Tino Soriano, fotógrafo de National Geographic, afirma que la fotografía documental es, sobre todo, autobiográfica, es decir, el

kilaritza dokumentala guztiaren gainetik autobiografikoa dela, hau da, argazkilaria informazioaren erdigunean kokatzen da eta ikuslea bere begiradatik gertakaria ikustera bultzatzen du. Horrela, Lizasok bere egunerokotasuna eta ezinegonak ikuslearenak egiten ditu erakusketa honetan.

Gizartea osatzen duten hainbat talde aurkezten ditu egileak, beti ere pandemia garaian, eta talde bakoitza une horretan bizitzen ari dena erakusteko asmoz.

Komunikabideetan hainbestetan aipatu diren talde zaurgarrienetako batekin hasten da: adinekoak. Zahartzaroan gizakiok jasaten dugun bakardadea erakusten digu atal honetan. Donostiako kaleetan, udako egun eguzkitsuetan, Kontxako hondartzako pasealekuan edo Alde Zaharrean denak ez dira familiak, ezta gazteak ere. Gipuzkoako hiriburuko kaleak bakardadean igarotzen dituzten adineko pertsonez beteta daude kaleak. Hori erakusten du Itsasoa ere grisa bihurtu daiteke atalean.

1998an jaiotako horiek atalean, gazteak dira subjektu nagusia. Egileak bere adineko gazteekin antolatutako zita ezberdinetan ateratako argazkiak dira. Pandemiak lan mundura

fotógrafo se sitúa en el centro de la noticia y empuja al espectador a ver el suceso desde su mirada. Así, en esta exposición, Lizaso hace que el espectador participe de su día a día y de sus inquietudes.

El autor presenta una serie de grupos que forman la sociedad, siempre en tiempos de pandemia, con el fin de mostrar lo que está viviendo en ese momento cada grupo.

Esta obra comienza con uno de los grupos más vulnerables que tantas veces se ha señalado en los medios de comunicación: las personas mayores. En este apartado nos muestra la soledad que sufrimos los seres humanos en la vejez. En las calles de San Sebastián, en los días soleados de verano, no todos son familias o jóvenes en el paseo de la playa de la Concha o en el Casco Viejo. Las calles de la capital guipuzcoana están llenas de personas mayores que pasean solas. Así se muestra en el apartado «Itsasoa ere grisa bihurtu daiteke / El mar también puede volverse gris».

En el apartado «1998an jaiotako horiek / Los nacidos en 1998», los jóvenes son el sujeto principal. Son fotografías tomadas por el autor en diversas citas con jóvenes de su edad. Muchos de ellos fueron sorprendidos por la pandemia a

ateratzekotan zirela harrapatu zituen gazte hauetako asko, beste batzuk lanean ari ziren dagoeneko. Hala ere, pandemiak etorkizuneko planak nola edo hala moldatu dizkie. Ikusleak protagonisten ahotsetik entzun ahal izango du zein den euren egoera pertsonala momentu honetan bideo instalazio bati esker.

Lehen sektorearentzako ere ez da garai samurra izan. Berehala debekatu zitzaien gure baserritarrei diru iturri nagusi dituzten merkatuetan haien produktuak saltzea, eta baserrian, saltzen ez dena, alperrik galtzen da. Hala ere, hurrengo uzta prestatzeko lanean jarraitu behar da, edo abereak hazten. Gelditzen ez direnak atalean, Urnietako Gurutzeta baserriko Maite Otaño eta Joseba Lete dira protagonista, Lizasok lan egun oso bat igaro zuen haiekin. Goizean goizetik hasi, Hernaniko plazan jartzen duten postuan, eta arratsaldera arte, lurra lantzeaz bukatzen dutenean.

Familiak ere badu bere lekua lan honetan. Lizasok itxialdiarekin eman zion hasiera lan honi, hortaz, sormenari bidea ireki zion lehenengo gauza familia izan zen. Bere bikoteari gitarra jotzen ari zela ateratako argazki

punto de enfrentarse al mundo laboral, mientras que otros ya estaban trabajando. Pero la pandemia les ha cambiado a todos sus planes de futuro de alguna manera. El público podrá escuchar en la voz de sus protagonistas cuál es su situación personal en este momento mediante una instalación de vídeo.

Tampoco ha sido un momento fácil para el sector primario. Enseguida se prohibió a nuestros baserritarras vender sus productos en los mercados, de los cuales provienen su principal fuente de ingresos y en el caserío, lo que no se vende, se pierde. A pesar de todo, hay que seguir trabajando en la siguiente cosecha o cuidando de animales. En el apartado «Gelditzen ez direnak / Los que no paran», los protagonistas son Maite Otaño y Joseba Lete, del caserío Gurutzeta de Urnieta, con los que Lizaso pasó un día completo de trabajo. Desde primera hora de la mañana, en el puesto que ocupan en la plaza de Hernani, hasta la tarde, cuando terminan la jornada trabajando la tierra.

La familia también ocupa un apartado en esta exposición. Lizaso comenzó este trabajo en el inicio del confinamiento, por lo que su primera fuente de inspiración fue la familia. Todo empezó con una fotografía de su pareja tocando la guitarra. El apartado «Etxe barruko arrastatzea

batekin hasi zen dena. Argazki horrekin hasi eta itxialdian pasa zen guztia erakusten digu Etxe barruko arrastatzea sailean. Ama sukaldean, aita lorategian, anaia klasean, bideodeiak, ile-apaindegia etxeko sukaldean... Euskal Herriko etxe gehienetan pasa dena plazaratu du.

/ Arresto domiciliario» comienza con esa foto y nos muestra todo lo que ocurrió durante el confinamiento. La madre en la cocina, el padre en el jardín, el hermano en clase, videollamadas, una peluquería en la cocina de casa ... Saca a la luz lo que ha pasado en la mayoría de los hogares de Euskal Herria.

**Artista /** artista: **Beñat Lizaso Garcia**

## JARDUERAK

**Urtarrilak 28**

18.00

Inaugurazioa
Etxepare aretoa

**Otsailak 3**

18.00 eta 19.00

Bisita gidatua
Etxepare aretoa

**Otsailak 17**

18.00 eta 19.00

Bisita gidatua
Etxepare aretoa

## ACTIVIDADES

**28 enero**

**18:00**

**Inauguración**
Etxepare aretoa

**3 febrero**

**18:00 y 19:00**

**Visita guiada**
Etxepare aretoa

**17 febrero**

**18:00 y 19:00**

**Visita guiada**
Etxepare aretoa

**Informazio gehiago /** más información:

**www.ehu.eus/ehukultura-bizkaia**

# INDIE+ FESTIVAL

**Musika/** música

**Otsailak 4 / 11** febrero — 18.00

**Sala Mitxelena aretoa. Bizkaia Aretoa-UPV/EHU**

**Sarrera librea. Edukieran mugak eta ordutegian aldaketak egon daitezke Covid-19 araudiaren ondorioz.**
Entrada libre. Limitaciones de aforo y cambios de horarios susceptibles por normativa Covid-19.

**Otsailak 4** febrero





INDEPENDENTE:

1 adj. Burujabea, beregaina, inoren mende ez dagoena.

Hiztegiak ematen duen definizioak balio dezake 1970eko eta 1980ko hamarkadetako musikan «indie» terminoa nola sortu zen ulertzeko. Gazteak haserre zeuden, ez zuten inoren

**Otsailak 11** febrero





INDEPENDENTE:

1. adj. Que no tiene dependencia, que no depende de otro.
2. adj. Autónomo.
3. adj. Dicho de una persona: Que sostiene sus derechos u opiniones sin admitir intervención ajena.

La definición del diccionario podría servir para intentar entender el nacimiento en la música del término

mende egon nahi ez abestiak idazteko eta argitaratzeko ez birak eta kontzertuak antolatzeko. Modu autonomoan eta autogestionatuan egin nahi zuten guztia, zuzen eta etikoki, multinazional handirik gabe, bai diskoak grabatzeko bai fanzineak editatzeko eta egiazko eta zuzeneko eran sortzen ari zena transmititzeko, eta euren musika eta iritziak defendatzen zituzten, inori eskua sartzen utzi gabe. Horrez gain kontuan hartzen baditugu artea arteagatik egitea, estetika, «do it yourself» kontzeptua, munduko egoera politikoa, etxe okupatuak, amorrua, punka, hardcorea, straight edge mugimendua eta lehen jaialdiak, ulertuko dugu historiako une garrantzitsu bat izan zela, eta, nolabait, betiko aldatu zuen musika.

Gero, sistemak, nahi duena egiteko ahalmena duenez, mugimendua eta kontzeptua bereganatu eta okertu zituen, eta ia marka bihurtzea lortu zuen. Baina gaur egun oraindik badago mundu  independente batean bizi den artistarik, arteari dagokionez behintzat , eta bide zailak eta arriskutsuak egiten dituzte, denborek, multinazionalek, babesleek edo sare sozialek zer eskatzen duten aintzat hartu gabe. Artea arteagatik, berriro ere. Ezagut ditzagun.

«indie» durante las décadas de los 70 y los 80. Jóvenes enfadados que no querían depender de nadie para escribir y publicar sus canciones u organizar sus giras y conciertos, que querían hacer todo de manera autónoma y autogestionada, de manera justa y ética, sin las grandes multinacionales, ya fuese para grabar sus discos o para editar sus fanzines y transmitir lo que estaba surgiendo de una manera veraz y directa, y que defendían su música y sus opiniones sin admitir injerencia ninguna. Si a esto le sumamos el arte por el arte, la estética, el concepto «do it yourself», la situación política mundial, los squats, la rabia, el punk, el hardcore, el movimiento straight edge, los primeros festivales, entenderemos que fue un momento único en la historia y que de alguna manera cambió la música para siempre.

Después, el sistema, que todo lo puede, absorbió el movimiento y el concepto y lo pervirtió hasta casi convertirlo en una marca. Pero aún hoy podemos encontrar artistas que, al menos a nivel artístico, se mueven en la independencia y transitan caminos difíciles y arriesgados lejos de lo que los tiempos, las multis, los sponsors o las redes sociales demandan. Otra vez el arte por el arte. ¡Descubrámoslos!

## Otsailak 4 febrero

# NUEVA VULCANO



Bartzelonako hirukotea elkar erabili aurretik berriz elkar ezagutzearekin jolastu da disko berrian. Ensayo diskoan maitasun abesti gutxiago daude, izan ere, bai abestien, bai energiaren atzeko giroak Artur Estradaren, Wences Aparicioren eta Albert Guàrdiaren barruan duela hamabost urte baino gehiagotik dauden samurtasuna, osagarritasuna eta agurrik gabeko besarkada irudikatzen ditu. Horixe da ia urtebetez egin zuten kirola: berriz elkar topatzea, hasierako garaietan bezala.

Jarrerak eta ideiak maila berean ulertzeko ezinbesteko talde bat da. Zenbait aldiz (literalki) mundu erdian birak eginda eta beste talde batzuetan 25 urte baino gehiagoan aktiboki arituta, Estatu osoko underground interesgarrieneko parte da. Jaialdian emanaldi bat eskaintzea erabateko luxua da.

El trío barcelonés ha jugado a reconocerse antes de usarse en su nuevo disco. En «Ensayo» hay menos canciones de amor porque el clima sobre el que basculan tanto las canciones como la energía representa el cariño, la complementariedad y el abrazo sin partir que habita en los Artur Estrada, Wences Aparicio y Albert Guàrdia desde hace más de tres lustros. Ese es el deporte que practicaron durante casi un año: volver a reencontrarse como cuando se encontraban en sus inicios.

Una banda fundamental para entender actitud e ideas a partes iguales, habiendo girado en varias ocasiones (literalmente) por medio mundo y llevando activamente en otras bandas durante más de 25 años formando parte del underground más interesante de todo el estado. Todo un lujo su actuación en el festival.

## Otsailak 4 febrero
# SUA



Sua Maruriko talde misto bat da, 2018an Anne Barrenetxeak (ahotsa), Janire Lópezek (baxua eta teklatua), Julen Wrightek (gitarra) eta Esteban Gaviriak (bateria) eratua. 2019ko martxoan, Sua lehen EPa kaleratu zuten. Maketa lehiaketa batean lehenengo saria irabazi ondoren, urte bereko Bilbao BBK Live jaialdian aritu ziren.

Beren lehen albuma, Ordu beltzak, euskarazko eta ingelesezko 10 abestiz osatuta dago. Hitzetan esperientziak eta sentimenduak partekatzen dituzte, eta sua darion estiloarekin batera, gustu guztietarako erregistroak eskaintzen dituzte.

Riff itsaskorrez, erritmo aldakorrez eta larruazala lazten duten ahotsez osatuak.

Sua es una banda mixta de Maruri formada en 2018 por Anne Barrenetxea (Voz), Janire López (bajo y teclados), Julen Wright (Guitarra) y Esteban Gaviria (Batería). En marzo de 2019 lanzaron su primer EP «Sua». Después de hacerse con el primer premio en un concurso de maquetas, actuaron en el festival Bilbao BBK Live ese mismo año.

Su primer álbum «Ordu Beltzak» está compuesto por 10 canciones en euskera e inglés. Comparten experiencias y sentimientos en sus letras, que junto a su estilo rabioso ofrecen variedad de registros para todos los gustos.

Con riffs pegadizos, ritmos cambiantes y voces que erizan la piel.

Otsailak 4 febrero

# BAOBABS WILL DESTROY YOUR PLANET



Baobabs Will Destroy Your Planet (Iruñea, 2014) euskarazko musikan panorama berri bat sortzeko asmoarekin jaio zen. Eneko Reketibatek (bateria), Txemi Losadak (gitarra), Amaia Zalbidek (sintetizadoreak) eta Eymard Uberetagoenak (gitarra eta ahotsa) osatutako taldeak indie generoko eragin anglosaxoi nabarmenak islatzen ditu, bai melodietan, bai soinuan.

Bi disko eta EP baten ondoren, beren ibilbidean ezinegona erakutsi dute, bai musikalki, Londresko Abbey Road estudioetan grabatu duen lehenengo talde euskalduna izanik, bai hainbat hiri handitan joz, esaterako, Parisen, Madrilen eta Bartzelonan. 2021ean, hirugarren diskoa kaleratzekoak dira.

Baobabs Will Destroy Your Planet (Pamplona, 2014) surgen con la intención de aportar un panorama nuevo a la música en euskera. El grupo compuesto por Eneko Reketibate (batería), Txemi Losada (guitarra), Amaia Zalbide (sintetizadores) y Eymard Uberetagoena (guitarra y voz) reflejan claras influencias anglosajonas del género indie tanto en sus melodías como en el sonido.

Tras 2 discos y un Ep llevan una trayectoria dónde demuestran su inquietud tanto musicalmente, siendo el primer grupo euskaldún en grabar en los estudios Abbey Road de Londres o habiendo actuado en ciudades como París, Madrid, Barcelona, etc... En 2021 está prevista la salida de su tercer disco.

## Otsailak 11 febrero
# MARIA BERASARTE



María Berasartek, nazioarteko proiekzio handieneko euskal kantariak, Lurra Eta Bidea proiektua aurkeztuko du. Bertan, bere istorioa irudikatzen du, bere lurrari eta jatorriari zuzendutako oda gisa. Bere ibilbidea musika iberikotik abiatuz baina beti euskal sustraiak zainduz garatu duen emakume baten kezka da.

Joan-etorriko bidaia bat da hau. Klasikotik abiatuz, fadora eta flamenkora, musika zeltara, sefardira iritsi zen eta beste genero batzuen ezagutzan sakondu zuen, jatorria galdu gabe. Maríak artista handiekin elkarlanean eta batera aritzea lortu du, besteak beste, Jordi Savall, Ara Malikian, Paco de Lucía eta Carlos Do Carmorekin, eta nazioarteko hainbat espazio eta jaialditan parte hartzea, adibidez, Sibiuko Nazioarteko Jaialdian, Hong Kong Arts Festivalen eta Bruselako Palais de Beaux-Arts-en.

Musika abentura honetan, Joseba Irazoki (gitarra elektrikoak) eta Igor Telletxea (perkusioa eta bateria) ditu lagun. Gainera, David Azurzaren ahotsa izango du, artista gonbidatu gisa.

María Berasarte, la cantante vasca con mayor proyección internacional presenta su proyecto «Lurra Eta Bidea», en el que representa su historia en forma de oda a su tierra y sus orígenes. Es la inquietud de una mujer que ha desarrollado su carrera a partir de la música ibérica pero siempre cuidando sus raíces vascas.

Este es un viaje de ida y vuelta. Partiendo del clásico, llegó al fado y al flamenco, a la música celta, sefardí y ganó conocimientos de otros géneros sin perder su origen. María consiguiendo colaborar y actuar con artistas de la talla de Jordi Savall, Ara Malikian, Paco de Lucía o Carlos Do Carmo entre otros, y actuar en espacios y festivales internacionales como el Festival Internacional de Sibiu en el Hong Kong Arts Festival o el Palais de Beaux-Arts de Bruselas.

Le acompañan en esta aventura musical Joseba Irazoki, guitarras eléctricas, Igor Telletxea, percusión y batería y contará con la voz de David Azurza como artista invitado.

## Otsailak 11 febrero
# SARA ZOZAYA



Sara Zozaya Donostiako abeslari, konpositore eta musika tresna askoren jotzaile gazte bat da. Urte asko daramatza zeresana ematen bere eremuan parekorik ez duen profila duelako, industriako emakume aktiboa da, mugarik gabeko jakin-min musikala du eta entzuleak hunkitzeko gai da, kutsu nostalgikoa eta estilo nahasketa oso interesgarria bateratzen dituzten sorkari intimoen bidez.

Bere lan berria aurkeztuko du, Bat. Lan horretan, bere unibertsoa folkarekin, poparekin, lo-fiarekin eta beat elektronikoekin nahasten du, eta artistak bere arima modu berritzailean aletzen jarraitzen du. Nazioarteko soinu modernoen eta euskal musika tradizioaren arteko nahasketa interesgarria. Horiek horrela, eremuko artista apurtzaileenetako bat da, zalantza-rik gabe. Ez dauka mugarik.

Sara Zozaya es una joven cantante, compositora y multiinstrumentista de Donostia que lleva ya años dando que hablar por su perfil único en la zona, mujer activa en la industria, tiene una curiosidad musical sin límites y es capaz de llegar al alma de las personas a través de sus creaciones íntimas, con un deje nostálgico y una mezcla de estilos realmente interesante.

Presenta su nuevo trabajo «Bat», dónde combina su universo con folk, pop, lo-fi y beats electrónicos en el que la artista sigue desgranando su alma de una forma novedosa. Una interesante mezcla de sonidos modernos internacionales con la tradición musical vasca que, sin lugar a dudas, la convierten en una de las artistas más rompedoras de la zona. No tiene techo.

## Otsailak 11 febrero
# ENERITZ FURYAK



Azken urteak konplize izan dituen pixkanakako eraldaketak 2021a aldaketa horien emaitza biltzeko urtea bihurtzen dute. Eneritz Furyakek dagoeneko uztaren zati bat jasota zeukan aurreko bi diskoetan, euskal musikako ahots berrietako bat bezala finkatuta eta hainbat herrialdetan emanaldiak eginda, adibidez, Frantzian, Belgikan, Alemanian, Suitzan eta Italian, baita hurbilagoetan ere, esaterako, Katalunian eta Galizian. Eta, noski, euskal geografia osoan. 2021ean, beste pauso bat emango du, nabarmenki ezberdina den lan berri batekin, aldaketa estilistiko bat egin baitu, elektronika industrialetik edo R&Btik gertuko erreferentziak slowcore edo post folk aztarnekin nahasiz. Hitz abstraktuak, azalpen bat baino gehiagotarako baliagarriak eta irekiak, erabiltzen jarraitzen du. Baina gai guztietan kontzeptu nagusi bat sumatzen da, bizi garen munduan bi ibilbide bakarrik izatearen ideia: markatutako bideari jarraitzea galderarik egin gabe edo sufrimendu bikoitza izatea, bidea —edo norbere burua— zalantzan jartzeagatik eta ez egokitzeagatik.

La paulatina transformación de la que han sido cómplices los últimos años, lleva a 2021 a ser el año de recolección de los frutos de esos cambios. Eneritz Furyak ya había recogido parte de la cosecha de sus dos discos anteriores, estableciéndose como una de las nuevas voces de la música vasca y girando por países como Francia, Bélgica, Alemania, Suiza, Italia, lugares más cercanos como Cataluña o Galicia. Y obviamente, por toda la geografía vasca.
En 2021 da un paso adelante con un nuevo trabajo sensiblemente diferente, con un giro estilístico mezclando referencias cercanas a la electrónica industrial o al R&B con el poso slowcore o post folk. Continúa con el uso de letras abstractas, válidas y abiertas a más de una explicación. Pero hay un concepto que flota por encima de todos los temas, esa idea de vivir en un mundo que solo nos ofrece dos itinerarios: seguir el camino marcado sin hacer preguntas o sufrir doblemente por cuestionarlo, o cuestionarse, y no encajar.

# IN ALBIS

Antzerkia / teatro

Martxoak 10 marzo 19.00

**Sala Mitxelena aretoa. Bizkaia Aretoa-UPV/EHU**

CAS

Sarrera librea. Edukieran mugak eta ordutegian aldaketak egon daitezke Covid-19 araudiaren ondorioz.
Entrada libre. Limitaciones de aforo y cambios de horarios susceptibles por normativa Covid-19.



**Zuzendaria / Dirección:** Yolanda Bustillo
**Idazlea / Texto:** Ana Molina
**Aktoreak / Intérpretes:** Gorka Álvarez, Maider Andrés, Ioritz Benito, Miren Bikandi, Eli Bilbao, Nora Busturia, Gorka Garde, Emma Hierro, Lucía Martín , Ana Molina.

**Argiak eta soinua / Luces y espacio sonoro:** Inga Cerro
**Iraupena / Duración:** 65 min.

Batzuetan, gertatzen dena ulertu gabe bizi gara, espero duguna lortu gabe, gure egunetako gertaeren aurrean zurian... IN ALBIS. Eta ohiz kanpoko jazoera batek bakarrik eragin dezake guk lehengo norabidea berreskuratzea zein bide berria hartzea.

Edo, beharbada, ez da horrela; beharbada ez da ohiz kanpokoa gure mihise zuriari berriz kolorea emateko aukera eskaintzen diguna, agian detaile txikiak dira garenean eta garenaren zergatian berriz sinetsarazten digutenak.

IN ALBISek artista gazte baten istorioa kontatzen digu. Margolari-karrearen une gorenean zulo existentzial ilunean erori ondoren, ez da horretatik bakarrik irteteko gauza sentitzen. Eta inguruan pertsona asko dituen arren, oso gutxik luzatu ahal izango diote eskua dagoen lekutik ateratzen saiatzeko.

Bere esanetan, batek baino ez.

A veces vivimos sin comprender lo que sucede, sin lograr lo que esperamos, en blanco ante los acontecimientos de nuestros días... IN ALBIS. Y sólo un suceso excepcional es capaz de hacernos recuperar el rumbo, el que seguíamos o uno nuevo.

O tal vez no es así, tal vez no es lo excepcional lo que nos permite dar de nuevo color a nuestro lienzo en blanco sino pequeños detalles que nos devuelvan la creencia en lo que somos y en por qué lo somos.

IN ALBIS nos cuenta la historia de un joven artista que, en el momento más álgido de su carrera como pintor, cae en un agujero existencial oscuro del que no se siente capaz de salir solo. Y aunque hay muchas personas a su alrededor, muy pocas podrán tenderle la mano para intentar sacarle de donde se encuentra.

Según él, sólo una.

# TAILERRAK / TALLERES

## Mikrokontakizunak

2021. urtean, Bizkaia Aretoaren X. urteurrena ospatuko da, aukera paregabea eraikin berezi horretaz eta testu laburren magiaz gozatzeko, literatura sorkuntza txiki horien atzean dagoen bizitzaz gozatzeko. Utz iezaiozu irudimenari hegan egiten arkitektura gune berezi hori eta Álvaro Siza diseinatzaile saritua ardatz izango dituzten kontakizun laburren bidez. Osatu zure kontakizunak Bizkaia Aretoa eta haren inguruak lotune gisa erabilita. Narratzailea, pertsonaien sorkuntza eta erritmo narratiboa landuko ditugu, teoria azken bilduma batean jasoko diren elkarlaneko eta banakako ariketekin tartekaturik.

## Microrelatos

Este año 2021 se conmemora el X aniversario del Bizkaia Aretoa una oportunidad única para disfrutar de este edificio singular y de la magia de los textos breves; de la vida que se esconde detrás de estas pequeñas creaciones literarias. Deja volar tu imaginación a través de relatos breves que tendrán como hilo conductor este especial espacio arquitectónico y a su galardonado diseñador Álvaro Siza. Da forma a tus relatos usando como nexo el Bizkaia Aretoa y sus inmediaciones. Trabajaremos el narrador, la creación de los personajes y el ritmo narrativo intercalando la teoría con ejercicios colaborativos e individuales que serán recogidos en un recopilatorio final.

**Lekua /** Lugar:
Sala Elhuyar / Oteiza aretoa.  Bizkaia Aretoa-UPV/EHU.

**12 ordu** / horas

**Egunak /** Fechas:
**Otsailak 4, 11, 18, 25** febrero (sala Elhuyar aretoa)
**Martxoak 11, 18** Marzo (sala Oteiza aretoa)

**Ordutegia /** Horario:
17-00 -19.00

**Modalitatea** / Modalidad:
**Online edo presentziala /** online o presencial

**Parte-hartzaile kopurua /** Nº máximo participantes: 20

**Irakaslea: Enrique Pérez Urresti**
Habla y Disfruta Formación y Comunicación eskolaren zuzendaria
Kazetaritzan lizentziatua. IAD Komunikazioan. UPV-EHU

Imparte: Enrique Pérez Urresti
Director de Habla y Disfruta Formación y Comunicación
Ldo. En Periodismo. DEA en Comunicación. UPV-EHU.

**Izen ematea /** inscripción:

ⓘ **www.ehu.eus/es/web/ehukultura-bizkaia/formulario2**

# EHUorkestra sinfonikoa



UPV/EHUren helburuetako bat da kultura sustatzea, hala erakunde barruan nola erakundetik kanpo. Ildo horretan, errektorego taldeak unibertsitatearen orkestra sinfonikoa eratzea pentsatu zuen 2016ko ekainean, beste unibertsitate batzuk egin duten bezala.

Gure unibertsitateko edozein kidek har dezakete parte, baina EHUorkestra sinfonikoa irekita dago, baita, unibertsitatekoak ez direnei, proiektu horretan parte hartzea nahi duten guztiei.

Uno de los fines de la UPV/EHU es fomentar la cultura dentro y fuera de nuestra institución. En este marco, en junio de 2016 el Equipo Rectoral se planteó la creación de una Orquesta sinfónica propia, al igual que las existentes en otras universidades.

Puede participar cualquier persona de nuestra comunidad universitaria, pero EHUorkestra sinfonikoa también está abierta a la participaciónde cualquiera, externo a la Universidad, que

Entseguak ostegunetan izaten dira, 17:00etatik 20:00etara, Leioako Campuseko Areto Nagusian.

**Parte hartu geure orkestran!**

quiera colaborar en este proyecto. Los ensayos son los jueves, de 17 a 20 h, en el Aula Magna del Campus de Leioa.

**¡Anímate a participar en nuestra orquesta!**

ⓘ **www.ehu.eus/es/web/bizkaia/orkestra-sinfonikoa**

## Nola jaso 'EHUkultura-Bizkaia'ren informazioa zure posta elektronikoan?

UPV/EHUk Bizkaian antolatzen dituen kultur jarduerei buruzko informazioa jasotzeko zerbitzuan alta ematea doan nahi duten lagunek webgunean eman behar dute izena esteka honen bidez:

## ¿Cómo recibir información de EHUkultura-Bizkaia en tu email?

Aquellas personas que quieran darse de alta gratuitamente en el servicio de recepción de información de las actividades culturales de la UPV/EHU en Bizkaia, solo tienen que suscribirse en la web, a través del enlace:

ⓘ **www.tinyurl.com/alta-ehukultura-bizkaia**



**Gogoratu maskara erabili behar duzula.**
Recuerda llevar la mascarilla.




**Zaindu pertsonen arteko segurtasun tartea eta saihestu kontaktu fisikoa.**
Respeta la distancia de seguridad y evita el contacto físico.



**Erabili gel hidroalkoholikoa.**
Utiliza los dispensadores de gel.



**Ahal izanez gero, ez erabili igogailuak.**
Evita usar los ascensores.



**Ezin dira erabili eserleku batzuk. Edukiera mugatua.**
Inhabilitación de butacas. Aforo limitado.



**Sarrera eta irteera mailakatuak.**
Entrada y salida escalonada.



**Tenperatura zaindutako gunea.**
Zona termo vigilada.




**Eraikina etengabe desinfektatzen eta aireztatzen da.**
Desinfección y ventilación constante del edificio.




Argazkia/Fotografía: **Tere Ormazabal.**

**Kultur Gestiorako Bulegoa**
Oficina de Gestión Cultural

**Bizkaia Aretoa-UPV/EHU**
Abandoibarra, 3 | 48009 Bilbao
Tf.: +34 94 601 21 04
+34 94 601 71 42
ehukultura-bizkaia.info@ehu.eus
**www.ehu.eus/ehukultura-bizkaia**

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Bizkaia Aretoa